



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko martxoaren 19a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko okelen eta okela-jakien kalitate-azterketak egin ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da “Sirio Tormenta 2013” izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak bazter utzia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesten ditu martxoaren 23rako, Xenofobiaren eta Arrazakeriaren aurkako Egunaren kariatara, antolatuta dauden ekitaldiak. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa nork edo nortzuek egingen duten elikagaien laginen kontrola Nafarroako ospitaleguneko sukaldeetan dietak prestatzeko prozesuan eta nork edo nortzuek egingen dituzten higiene arloko gorabeheri buruzko txostenak eta gainerako osasun-kontrolak, Marisa De Simón Caballero andreak egina (4. or.).
- Galdera, jakitekoa “Mediterránea de Catering” enpresak akatsak zuzendu ote dituen ala aztergai ote den kontratua deuseztatzeko aukera, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (5. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak arazorik eduki ote duen Caixabanekin 2012ko PFEZaren bigarren ordainketa zatikatua kobratzeko, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (5. or.).
- Galdera, gizarteratzeko errentaren eta gizarte enplegu babestuaren prestazio-hartzaileak toki entitateen bidez kontratatzekeo programen deialdia atzeratzeari buruzkoa, Gregorio Galilea Arazuri jaunak egina (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Gelazain Nagusiaren burutza izendatzea, bitarte baterako (7. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Erabakiak, Nafarroako gizarteak pairatzen duen langabezia egoerari buruz 2013ko otsailaren 21eko Osoko Bilkurak onetsiak (8. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko okelen eta okela-jakien kalitate-azterketak egin ditzan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2013ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoko okelen eta okela-jakien kalitate-azterketak egin ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoko okelen eta okela-jakien kalitatearen gaineko azterlanak egin ditzan, eta araudi indardunean (nazionala zen Europakoa) jasotako alderdien kontrola egin dadin, jakite aldera Nafarroan erosten eta jaten ditugun hanburgesen okelak aipatu araudi indardunean exijitzen diren kalitate irizpideak betetzen dituen."

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da "Sirio Tormenta 2013" izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da "Sirio Tormenta 2013" izeneko maniobrak bertan behera utz ditzan."

Legebiltzarreko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Batzordeak, 2013ko

martxoaren 13an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko martxoaren 1eko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babesten ditu martxoaren 23rako, Xenofobiaren eta Arrazakeriaren aurkako Egunaren kariatara, antolatuta dauden ekitaldiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Adierazten du datorren martxoaren 23rako zenbait kolektibo sozialek eta GKE-k antolatutako ekitaldiak babesten dituela.

2. Adierazten du biztanle guztien oinarrizko eskubideak Nafarroako Gobernuak aintzatetsi eta errespetatzearen alde dagoela, edozein dela ere

haien jatorri kultural edo etnikoa, eta, halaber, elkartasuna indartzearen alde; bereziki, krisi ekonomikoko egoera honetan ahulenak diren pertsonetikoa.

Adierazten du garrantzitsua dela zailtasun sozial eta ekonomikoak pairatzen dituzten migraziozailerentzako programa sozialak indartzea”

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa nork edo nortzuek eginen duten elikagaien laginen kontrola Nafarroako ospitaleguneko sukaldeetan dietak prestatzeko prozesuan eta nork edo nortzuek eginen dituzten higiene arloko gorabeheri buruzko txostenak eta gainerako osasun-kontrolak.*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa nork edo nortzuek eginen duten elikagaien laginen kontrola Nafarroako ospitaleguneko sukaldeetan dietak prestatzeko prozesuan eta nork edo nortzuek eginen dituzten higiene arloko gorabeheri buruzko txostenak eta gainerako osasun-kontrolak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak heldu den martxoaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galdera:

Nork edo nortzuek eginen dute elikagaien laginen kontrola Nafarroako ospitaleguneko sukaldeetan dietak prestatzeko prozesuan? Nork edo nortzuek eginen dituzte higiene arloko gorabeheri buruzko txostenak eta gainerako osasun-kontrolak? Nork jasoko du informazio hori?

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakitekoa “Mediterránea de Catering” enpresak akatsak zuzendu ote dituen ala aztergai ote den kontratua deuseztatzeko aukera.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa “Mediterránea de Catering” enpresak akatsak zuzendu ote dituen ala aztergai ote den kontratua deuseztatzeko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Osasun Departamentuak “Mediterránea de Catering” enpresari akatsak zuzentzeko emandako epea bukatuta, zuzendu al ditu, ala kontratua deuseztatzeko aukera aztertzen ari zarete?

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak arazorik eduki ote duen Caixabanekin 2012ko PFEZaren bigarren ordainketa zatikatua kobratzeko.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak arazorik eduki ote duen Caixabanekin 2012ko PFEZaren bigarren ordainketa zatikatua kobratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervásek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Goicoechea andreak hilaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ogasun Departamentuak arazorik eduki al du Caixabanekin, Nafarroako Kutxako kontu zenbakia emana zuten zergadunei 2012ko PFEZaren bigarren ordainketa zatikatua kobratzeko?

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, gizarteratzeko errentaren eta gizarte enplegu babestuaren prestazio-hartzaileak toki entitateen bidez kontratatuzeko programen deialdia atzeratzeari buruzkoa.

GREGORIO GALILEA ARAZURI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Gregorio Galilea Arazuri jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, gizarteratzeko errentaren eta gizarte enplegu babestuaren prestazio-hartzaileak toki entitateen bidez kontratatuzeko programen deialdia atzeratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Gregorio Galilea Arazurik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Galderaren testua

Nafarroan langabeziaren egoera hain kezkgarria izanik, Nafarroako Gobernuak zergatik atzeratzen du hainbeste gizarteratzeko errentaren eta gizarte enplegu babestuaren prestazio-hartzaileak toki entitateen bidez kontratatuzeko programen deialdia?

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Foru parlamentaria: Gregorio Galilea Arazuri

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gelazain Nagusiaren burutza izendatzea, bitarte baterako.

Heldu den martxoaren 18an bukatuko da egungo Gelazain Nagusia bere lanpostuan egoten ahal den sei urteko gehieneko epea. Hori dela eta, lanpostu hori betetzeko gaur egun izapidetzen ari den merezimendu-lehiaketa bukatu arte, eta Nafarroako Parlamentuaren Administrazioaren Antolamenduari buruzko Erregelamenduko 15.3. artikularekin bat,

EBATZI DUT:

1. Gelazain Nagusi izendatzea, bitarte baterako, Antonio Ansorena Urriza jauna, zeina Nafarroako

Parlamentuko gelazainen kidegoko funtzionarioa baita. Ebazpen honek eragina izanen du 2013ko martxoaren 19tik aurrera, aipatu burutza betetzeko merezimendu-lehiaketa ebatzi bitartean.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko martxoaren 14an

Legelari nagusi ondokoa: Miguel Esparza Oroz

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Erabakiak, Nafarroako gizarteak pairatzen duen langabezia egoerari buruz 2013ko otsailaren 21eko Osoko Bilkurak onetsiak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela Nafarroak pairatzen duen langabezia egoerari buruz Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2013ko otsailaren 21ean egindako bilkuran hartu dituen erabakiak.

Lehena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du susta dezan, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, ekintzaileei arreta egiteko entitate-sare baten eraketa. Sare horrek modu koordinatuan jardun beharko du, zerbitzu-aukera komuna eta kalitateko gutxienezko estandarrek eskainiz.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du adierazle batzuk presta ditzan, enplegu politika aktiboen eraginkortasuna eta efizientzia neurtzeko balioko dutenak.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa batzuk egin ditzan, enplegu politika aktiboen eta pasiboen arteko lotura handiagoa lortzera bideratuak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekintza proaktiboak bultzatuz, langabetuen enplegarritasun handiagoa errazte aldera.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekonomia sozialeko enpresen sorrera bultzatzea dezan, xede hori duten diru-laguntzen berariazko deialdi baten bitartez.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, lurralde bakoitzera egokitu ditzan enplegu politika aktiboak, halako moduz non, enplegu agentzien lidergoaren pean, toki bakoitzean dauden baliabideak hobeki eta modu antolatuetan batean aprobetxatuko baitira.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du behar diren jarduketa politiko guztiak abian jartzea Nafarroako Ekonomia berraktibatze eta enplegua sortzeko plan bat prestatu eta ezartzeko. Plan horrek, gutxienez ere, honako neurriak jasoko ditu:

1. Enpresa-jarduketan finantziarazko Nafarroako agentzia orokor bat sortzea. Agentzia horrek kapital publikoa izanen du, Nafarroako Gobernuaren eta Sodenaren eskutik, eta zabalik egonen da toki entitateek eta inbertsio-egile pribatuek bertan parte har dezaten. Beharrezkoa izanen litzateke bi hilabeteren buruan martxan egotea.

Halaber, enpresa-proiektuak abalatzeko eginkizuna izanen luke, arriskuak aztertu ondoren.

Nafarroako Agentzia Orokorra nazioartekotzearekin eta ekintzailetza sustatzearekin lotutako eginkizun eta lan guztiak batera bilduko lituzke.

Agentziak, halaber, nazioartekotzeko Europako funts guztiak kudeatuko lituzke.

Nafarroako Gobernua izanen litzateke agentziaren liderra, eta Nafarroako Parlamentuko, toki entitateetako eta eragile ekonomiko eta sozialen ordezkariak ere izanen lituzke.

Halaber, inbertsio-egile pribatuak ere egonen lirateke.

2. Nafarroako ekonomia nazioartekotzeko programa.

Programa horren xedea izanen da esportaziorako oinarria handitzea; hau da, enpresa gehiago sartzeko esportazio-jardueran. Honakoak izanen lirateke neurriak:

a) Nazioartekotze azeleratuko enpresentzako berariazko laguntzarako programa. Programak enpresei lagunduko lieke, nazioartekotzearen etapa guztietan, aholkuekin, prestakuntzarekin eta kanpoan bazkideak bilatuz. Finantziarioa Nafarroako Agentzia Orokorren bidez emanen litzateke.

b) Nafarroako enpresen tamaina txikiarekin lotutako arazoak gainditzeko laguntzeko enpresa-sareak sustatzeko programa. Honela zehaztuko da:

– Enpresa txiki eta ertainen esportazio-partzueko eratzeko eta funtzionatzeko laguntza.

– Cluster politika bat garatzea; hau da, enpresen sareak, birtual nahiz fisikoak, negozio-sailetan interes partekatuak dituztenak.

– Enpresa esportatzaileen eta jarduera horretan hasten direnen arteko lankidetzak programak diseinatzea.

– Enpresen integrazioarako prozesuen aldeko giroa sortzea.

– Europar Batzordeak sustatutako enpresa-lankidetzarako programak indartzea.

c) Esportazioko eta nazioartekotzeko aukeren atari bat sortzea. Atari horretan, informazioa ematen da dauden aukera desberdinei buruz. Informazioa, bereziki, nazioartekotu diren enpresen eza-gupenekin eta esperientziekin elikatuko litzateke.

d) Inbertsio-egilearen leihatila bakarria sortuko da, finantzaketa prozesuak izapidetzeko. Nafarroako Agentzia Orokorraren barruan egonen litzateke.

e) Nafarroako Agentzia Orokorraren barruan, funts bat sortuko da enpresa txiki eta ertainak estrategikotzat jotako bektoreetan nazioartekotzeko laguntza emateko.

f) Business Angels-en foru sare bat garatzea, zeina lehendik dauden sare nazionalean eta Europako sarean integratuko baita. Hartara, inbertsio-egileen eta ekintzaileen arteko hartu-emanak sustatuko da, eta finantziatorako laguntza ematen da, enpresa-proiektu berriak abian jartzeko.

Nazioartekotzeko programa hau guztiz egonen da abian 2013a amaitu baino lehen.

3. Gazteentzako enplegu plan bat abian jartzea. Lau ardatz izanen lituzke: Orientazioa, ikasketak, prestakuntza, kalifikazioa eta birkualifikazioa; enplegu aukerak eta enpleguaren sustapena; eta autoenplegua eta ekonomia soziala.

Orientazioari dagokionez, sei jarduketa-lerro hartu behar dira aintzat:

1. Laneratzea biltzen duten ibilbide pertsonalizatuak.

2. Hartutako lanbide-eskumenen aitortpena.

3. Eskumenen kreditatzea, ziurtagiri ofizial baten bidez.

4. Berriazko laguntza-materialak diseinatzea, gazteei egokituak.

5. Laneko orientazioarako sarbidea hobetzea.

6. Eskola garazi aurretik uzten duten gazteei arreta berezia eskaintzea.

Ikasketak, prestakuntza, kualifikazioa eta birkualifikazioa direla eta, honako ildoak jaso behar dira:

1. Goraka ari diren sektoreetan tailer-eskolak egitea. Teknologia berriak, energia berriztagarriak, ingurumena eta abar.

2. Eskola garaiz aurretik uzten duten gazteei heziketa araturako sarbidea erraztea.

3. Lanerako prestakuntzarako sarbidea ahalbidetzea.

4. LH duala, Alemaniako ereduakoa, ezartzeko bultzada ematea.

5. Lizentziatuak izan eta gradu ondoko ikasketak dituzten gazteentzako bikaintasuneko prestakuntza bultzatzea, atzerrian lanbide-hobekuntzarako ikastaroak eginez.

6. Ekintzailetzaren arloko prestakuntza.

Enplegu aukerei eta enplegu sustapenari dagokionez, lau ildo garatu behar dira:

1. Kontratazioarako pizgarriak ematea alternantziako eta prestakuntza/enpleguko programen bitartez.

2. Enpresetan, praktikak egiteko edo beka batekin jarduteko kontratuak sustatzea.

3. Kontratu mugagabeak bultzatzea.

4. Behin-behineko kontratuak mugagabe bihurtzeko pizgarriak ematea.

Autoenpleguan eta gizarte ekonomian, lau ildo aurreikusi behar dira:

1. Aholkularitza, prestakuntza eta tutoretza ematea enpresa-proiektuak sortu eta abian jartzeko. Merkataritza Ganberarekin lankidetzan egiten litzateke.

2. Enpresa berriak abian jartzeko laguntza ekonomikoak.

– Lehenengo urteko funtzionamendu gastuak ordaintzeko diru-laguntza.

– Maileguetarako abalak.

– Inbertsiorako laguntzak.

Lan hauek Nafarroako Agentzia Orokorraren bitartez egiten lirateke.

3. Gazteen ekintzailetzarako gaitasuna sustatzea.

4^o Autoenplegua sustatzeko azokak antolatzea.

4. Fiskalitate berri bat diseinatzea ekintzailetzarako, enpleguari eusteko eta enplegua sortzeko

pizgarriak direla eta. Gaiari buruz berriki sortu den Parlamentuko lan-taldearen ondorioak onartuta.

5. Behar diren urratsak egitea negoziazio kolektiboa desblokeatzeko eta saihesteko milaka langile, gaur egungo hitzarmen kolektiboen babesa galduta, lan legediaren mailetara pasa daitezzen. Nafarroako Gobernuak sustatuko du desblokeatze hori gerta dadin, eta arinago eginen da lortzen diren hitzarmen kolektiboen Nafarroako Aldizkari Ofizialeko argitalpena.

6. Jarduketa- eta enplegu-esparru berriak bilatzen dituen plan industrial bat egitea.

7. Departamentuarteko programa bat sortzea, enpleguaren arloko bazterketa, berdintasun-eza eta mendetasun egoerak artatzeko.

8. Parlamentuaren barruan ekonomia eta enplegua dinamizatzeko mahai bat sortzea, Nafarroako Parlamentuan ordezkatuta dauden talde politikoek, eragile ekonomiko eta sozialek eta toki entitateek osatua.

Zazpigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du neoliberalismoak Espainiako Gobernuaren eskutik inposatutako politika ekonomikoaren eta murrizketen aurka dagoela –Nafarroako Gobernua haiek sistematikoki aplikatzen ari da–, kontzienteki ekonomiaren depresioa eta enpleguaren suntsiketa sortzen dituztelako eta kapitalaren interesak herritarren eskubide sozialen aurretik jartzen dituztelako.

2. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa erakusten du herritarrek enplegurako duten eskubidea bermatuko duen politika ekonomiko propio baten definizioarekin.

3. Eta enpresa pribatuaren esparruan, Nafarroako Parlamentuak erabaki du Gobernua premia-tzea enplegu erregulazioko espedienteen onarpenarako neurriak gogortu ditzan eta ikuskatze zorrotza ezar dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak erabaki du gure herritarren gaikuntza eta prestakuntza izan daitezela kalitatezko enplegua bermatuko duen lehia-kortasun-ardatza. Horretarako, hezkuntza etapa guztietan –lanbide heziketa, unibertsitatea eta osagai publikoko ikerketari lotutakoak– behar diren neurriak ezarri eta behar diren baliabideak jarriko dira.

Zortzigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du behar diren lege- eta zuzenbide-baliabideak aktibatzea lehen sektorea sektore estrategiko gisa sustatzeko, eta merkataritzarako bide zuzenak sortzeko, Nafarroako produktuen kontsu-

moa eta merkaturatzea aldezteko eta bi sektore horietan enpleguaren garapena sustatzeko.

2. Horretarako, Nafarroako Parlamentuak erabaki du Gobernua premia-tzea behar adina baliabide ekonomiko jar ditzan lehen sektorea sustatzeko, eta Salgaien zuzeneko salmentari buruzko foru legea garatzeko.

Bederatzigarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du, partaidetza oinarri hartuta, neurri, akordio eta ekimenen multzo bat eraikitzea, enpleguaren politika aktiboen arloan, eta horren bidez zuzentzea egungo mekanismoetan agerikoak diren gabezia guztiak eta ahalegin guztiak bideratzea kalitatezko enplegua bermatzeko behar diren baldintzak sortzera.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Nafarroako Gobernua premia-tzea egitura-funts bat sor dezan inbertsiorako eta enplegu-sorkuntzarako, erakundeen, arlo ekonomikoen eta sindikatuen partaidetzarekin kudeatua, bere jarduerengatik ebaluagarria eta gardena, eta plangintza publiko eta sozialetik gidatua, honako xede hauekin: I+G+Bko baliabide publikoak optimizatzea, inbertsio produktiboa sustatzea, energia aurrezte, lanbide heziketa hobetzea eta lan merkaturatu sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboak hortik kanpo gera ez daitezzen bermatzea.

Hamargarrena. 1. Nafarroako Parlamentuak erabaki du neurri eraginkorrak abian jartzea, Nafarroako jarduera ekonomikoaren finantzaketa bermatzeko, bai enpresa txiki eta ertainentzat, bai autonomoentzat, bai ekintzaileentzat, interes sozialaren eta Nafarroako garapen ekonomiko eta industrialaren parametroetatik abiatuta.

2. Xede horrekin, Nafarroako Parlamentuak adierazten du finantziatorako sistema publiko eta propioa lortzeko borondatea, aurrezki publikoa premia sozialetara eta inbertsio produktibo propioa bideratzeko modua emanen duena.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du aberastasuna eta lana banatzeko ekimenak abian jartzea, haien bidez lanaldiaren gutxitze orokorrerantz eta lanaren banaketarantz joateko eta aparteko orduak kentzeko.

Hamabigarrena. Berrindustrializazioa lortzeko eta areagotzeko premia-zko berrindustrializazioko lau eremu eraikitzeko foru legea onartu behar da. Sakanan, Erriberan, Erdialdean eta Mendialdean garatu behar dira PBEak (premia-zko berrindustrializazio eremuak). Garapenak ingurumenaren jasangarritasuna izan behar du lehen xedetzat, bai energia aurreztuz, bai ingurumena eta bertako bitartekoak errespetatuz

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du behar diren baliabideak aplikatu dituzten, entitate publikoetan eta enpresa pribatuetan ezgaituentzako lanpostuak gordetzeari buruzko arau indardunen betetzea eta aplikazio erreala sustatze aldera.

Hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du honako ikasgaiak sar dituzten nahitaezko prestakuntza osagarri gisa enplegurako tailer-eskoletara doazenentzat:

- Ekintzailatza eta autoenplegua bultzatzea.
- Berrikuntza.

Hambosgarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du amaiera eman behar zaiela austeritate neolibereko politika masiboei, UPNko gobernuek Nafarroan eta PPko gobernuek Estatuan exekutatu dituztenei, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2013., 2014. eta 2015. urteetarako Berrakuntza, Inbertsio eta Enplegu Plan Publiko bat artikulatu dezan, honako edukia izan dena:

1. Defizitaren eta zor publikoaren helburuak berehalakotzat hartzea. 2012-2015 Egonkortasun Plana aldatzea, politika fiskal espantsibo bat ahalbidetze aldera.

2. Abal/Kredituen aparteko programa bat, autonomoak eta enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko, 100 milioi euroko urteko aurrekontuarekin eta Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. enpresa publikoak kudeatua.

3. Enpresa handien kapitaleko errenten, errenta altuen eta etekinen gaineko presio fiskala areagotzeko duen zerga erreforma.

4. Oinarrizko zerbitzu publikoen plantillak handitzea, herritarren premiak asetzeko, Hezkuntzaren, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloan enplegu eskaintza publikorako deia eginez 2013an, zerbitzu horietan dauden langile premiei erantzuteko.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du garapenerako eta enplegurako plan estrategikoak onetsi behar direla Erriberarako eta Sakanarako, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du haiek garatu eta betearaz dituzten, eskualde horietako erakundeetako eragileek eta eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartze eta adostasunarekin.

Hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak erabaki du beharrezkoa dela lan erreforma indargabetzea, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du erreforma hori errefusatu eta horren aurka borroka dezan, eta exijitzen dio ez dezala aplikatu

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta sektore publikoaren esparruan.

Hemezortzigarrena. 1. Estatuarekin negoziatzea 2013rako defizit helburuaren murrizketak, konpromisoa hartuz igoeraren 100eko 75, gutxienez ere, I+G+B delakora bideratzeko (2013an 40 milioi inbertsioa bermatuz) eta gure enpresa-ehundura laguntzera eta monitorizatzera, horren barne direla ekintzaileak eta gizarte ekonomia gure lurralde osoan zehar.

2. Eragile ekonomiko eta sindikal guztiak gonbidatzea elkarrizketa sozialeko prozesura.

3. Enpresa-lankidetzarako cluster eta sareak sor daitezkeen eta/edo finka daitezkeen sustatzea, gure sektore estrategikoetan.

4. Nafarroa nazioartean indartzea, xede dituzten merkatuetan zigortzeko ez gaituen marka batekin, eta presentzia instituzional bat edukiz kokapen estrategikoetan, Estatuak izan dezakeen presentziatik bereizita.

5. Elkarrizketak hasita Nafarroa EAE-Akitania Euroerregioan sartzeko, Europako erakundeetatik sustatzen ari den Europa Polizentrikoan koka dadin Nafarroa.

6. Betiere, Akitaniarekiko eta EAERekiko aldeko harremanak bultzatzea, onura komunitateko abiantza proiektuak garatzeko, gainontzeko erkidego mugakideekiko harremanak alde batera utzi gabe.

7. Europako sareen (Euromontana, esate baterako) inbentarioa egitea eta urratsak egiten hasita Nafarroa bere interesen arabera direnei atxiki dakien. Ahal den guztian indartzea Nafarroak Europako esparruko enteetan (Pirinioetako Lan Batzordea, ERRIN) jadanik duen presentzia.

Hemeretzigarrena. 1. Sodenak eta finantza entitateek sinatutako akordioaren baldintzak aldatzea, halako moduz non Nafarroako Gobernuak entitate bakoitzarekin balizko mailegu-eragiketetan hartzen duen batez besteko arriskua egungo 100eko 30etik 100eko 50era igoko baita, 100eko 75era ere iristeko aukerarekin, eragiketa bakoitzean, banaka hartuta.

2. Enpresa txiki eta ertainentzat zirkulatzailerako ematen diren abalen lerroa dela-eta dagoen gehieneko muga 150 milioi eurora igotzea, halako moduz non 2013an saldo bizi nabarmen handiagotu ahalko baita, arrisku-kalitatearen arazoizko parametroak errespetatuta. Saldo bizi hori 53,4 milioi eurokoa zen 2012ko ekainaren 30ean, eta horietatik 27,5 milioi, gainera, 2013aren amaiera baino lehen kitatu behar ziren.

3. Berriazko abal-lerro bat ezartzea diruzaintzako zailtasunak dituzten enpresa bideragarriak berregituratzeko prozesuak laguntzeko.

Hogeigarrena. 1. Nekazaritza ustiategiak modernizatzeko eta nekazari gazteak beren gain hasteko laguntzen 2013ko deialdia arautzen duen foru aginduan ezarritakoaren arabera, ahal den guztian azkartzea apirilaren 15a baino lehen aurkezten diren eskabideei buruzko erabakia, betiere ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskariak ez baztertzeko filosofiarekin, halako moduz non inbertsioak 2013an zehar gauzatu ahalko baitira.

2. INTIAk azterlan bat egitea, enplegu egonkorra sortzeko enpresa-ekimenak, dauden azpiegiturak optimizatuko dituztenak, planteatuko dituena.

Ekimen pribaturik ezean, Nafarroako Gobernuak lidergoa hartzea, bideragarritasun ekonomiko, finantzario nahiz merkataritzakoari buruzko azterlanak gainditu dituzten proiektuak abian jartzeari dagokionez.

3. Osasun arloan egin beharreko lege-aldaketak prestatzea, Europako erreferentziazko erregion baldintza beretan egon gaitezen produktu berekiak ekoitzi eta merkaturatzeko orduan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut erabaki hau argitarara dadin.

Iruñean, 2013ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera